
EMAN

BIDEA

IRUNi

HAUTESKUNDE PROGRAMA

UDAL HAUTESKUNDEAK

2019-2023



AURKIBIDEA

Eman bidea IRUNi! ;Un IRUN fuerte!	4
Irun berrirako taldea	7
HIRI PROIEKTUA	
A) GOBERNANTZA BERRIA	
Gardentasuna	9
Hiritarren Parte-hartzea	10
B) EKONOMIA SUSTAPENA	
Enplegua	12
Garraioa eta Logistika	13
Industria	14
Hiri-merkataritza	16
Landa eremua	18
Turismoa	19
C) GIZARTE SUSTAPENA	
Hautzaro eta Gazteria	21
Adineko pertsonak	22
Gizarte inklusioa	23
Kultura, Aisialdia, Euskara eta Kirolak	24
Aniztasuna	26
D) HIRIAREN ERABERRITZEA	
Diseinua eta Nortasuna	28
Hiriaren eraberritze urbanoa	29
Industria guneen eraberritze urbanoa	31
Azpiegiturak eta mugikortasun jasangarria	32
Ibilgailuen aparkalekua	34
Etxebizitza	35
Kultur eta Kirol ekipamenduak	36
Ingurumen politika	38
E) BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA	
Bizikidetza	40
Segurtasuna	42

EMAN BIDEA IRUNI UN IRUN FUERTE

Irun, gure hiria, historikoki bere aniztasunarengatik bereizi da, harrera-hiri izateagatik eta bere dinamismo ekonomikoarengatik. Hiri nortasun hori bere kokaleku geografikoari esker eraiki da, joan-etorri hiri eta topagune bilakatuz, eta muga-hiri izaera dela eta, aukerak sortuz eta zailtasunei aurre eginez. Historiak erakutsi digu Irunek beti jakin duela aukerez baliatzen eta aurrean azaldutako zailtasunak gainditzen.

Europar Batasunera sartzeak -benetako iraultza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala ekarri zuena- eta 80. urteetako krisi industrialak hiriaren gainbehera ekonomiko-soziala ekarri zuen: aduanen desagertzea, enpresa irundar entzutetsu askoren ixtea, etab. Irunen eta irundarren dinamismo eta harrotasuna itzaltzen joan ziren: hiriak eraldatu egin behar izan zuen bere aldagai guztietan (hirigintzan, mugikortasunean, gizarte politikan, birmoldaketa ekonomikoan, etab.).

Horri guztiari hiritarren ohiturak eta harremanak aldatu dituen globalizazio eta nazioartekotze prozesuak gehitu behar zaizkio, eta Irun ez da eraldaketa horren ondorioetatik kanpo geratu (merkataritza eta aisialdi ereduak, mugikortasun kolektiboan eta jarduera ekonomikoetan aldaketak, gizatalde berriak, etab.)

Gaur, nortasun lausoa duen Irun ikusten dugu, bere iragana samintasunez oroitzen duena eta suspertzen ez dena. Nekatuta dagoen hiria ikusten dugu, ahituta, itota, ilusiorik gabea, etorkizunarekin amesten ez duena... Gaur, harrotasun irundarrik ez dago.

1983tik gaur egun arte, bi alkate izan ditu hiriak; biak alderdi politiko berekoak: Alberto Buen eta Jose Antonio Santano. Hogeita hamasei urte hauetan ez dira gai izan zailtasunei aurre egiteko. Hogeita hamasei urte Irun berri baten lidergorik gabe. Are gehiago, Santanok alkatetzan daramatzan azkeneko 17 urteetan argi geratu da Irun berria diseinatzeko hiritarren eta erakundeen artean beharrezkoak diren sinergiak sortzeko gaitasunik eza. Irunek erakusten duen nekearen erantzule dira azken hamarkadetan udal boterean egon diren arduradunak. Santanoren politikak porrot egin du.

Irundarron egunerokotasunean eragin zuzena izan duten erronka globalek Irungo arduradun politikoei jarrera proaktiboa eskatzen zieten:

- Protagonismo pertsonalen gainetik, gizarte sarearekin elkarlana (enpresak, auzo elkarteak, merkataritza elkarteak, gizarte eragileak, etab.).
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioekin elkarlana bultzatzea, bereziki Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Sozialismoak eta, batez ere, Jose Antonio Santanok erakutsitako jarrerak oztopatu egin du Irunek benetako bultzada ekonomiko eta soziala izateko irtenbideak aurkitzea. Bere politikaren leit-motiva honela laburbil daiteke:

- Beste erakundeekin gatazka antzu eta zentzugabeak sortzea, hiritarren aurrean beraien interesen defendatzaile bakar bezala azalduz eta horrela, boterean mantenduz.
 - Hiriaren erronka eta arazoei irtenbidea eman oredez, inongo loturarik ez duten eta epe motzeko kudeaketari erantzuten dioten adabakiak jartzea.
- Irun egituratu eta kohesionatzen duten etorkizunera begirako irtenbide integral, koordinatu eta adostutakoak

Hori dela eta, gaur inoiz baino gehiago, Irunek aldaketa behar du: hiria kudeatzen duten pertsonen aldaketa, jarrera aldaketa, onuragarria izango den aldaketa, ilusioz beteko gaituen aldaketa. Funtsean eta moduetan aldaketa, baina aldaketa lasai eta arduratsua, etorkizuneko Irun bultzatzeko gai dena.

EAJ-PNVk beti erakutsi du Irunekiko konpromisoa, hala oposiziotik nola kudeatu dituen arloetatik. Hainbat eta hainbat izan dira Irungo EAJ-PNVko ordezkariak egin dituzten proposamen eta ekimenak, hiria hobetzeko helburuarekin, beti ere. Hala ere, sozialismo lubakituak ez die jaramonik egin edo baztertu egin ditu. Horietatik batzuk, gobernu sozialistak bere egin eta ekimenaren jatorria ezkutatuta, publikoki saldu ditu.

2015ean, gobernatzeko modu horri amaiera emateko, koalizio gobernua osatzeko akordioa sinatu genuen, Hirigintza eta Etxebizitza, Gazteria, Hezkuntza eta Euskara, eta Udaltzaingoa eta Giza Baliabideen arloen Kudeaketa gure gain hartuz. Asko zegoen hobetzeko hiru arlo horietan, eta EAJ-PNVko ordezkariak martxan jarri ziren, hamarkadetan zehar alderdi sozialistak geldirik eduki zituen proiektuetan, bereziki.

Alabaina, Jose Antonio Santano buru zuen sozialismoaren gobernatzeko moduak ez ziren egungo politika egiteko eredu berrietara egokitzen, Udal Gobernu barruan elkarlanerako ezintasuna agerian utziz eta une oro bere irudi publikoa lehenetsiz. Baita EAJ-PNVko taldekideek beren kudeaketa arloetatik lortzen zituzten aurrerapenen aurrean ere. Gauzak horrela, eta lortzen hasi ziren hobekuntzak oztopatzeko helburu bakarrarekin, Jose Antonio Santanok gobernu akordioa hautsi zuen (aldebakarreko erabakiz) eta EAJ-PNVko bozeramailea Irungo Udal Gobernutik kanporatu zuen. Aurrerago ikerketa batzorde batean egiaztatu zen moduan, fede txarrez hartutako erabaki horrek Jose Antonio Santanoren benetako aurpegia agerian utzi zuen. Bere lankidetzarako ezintasunak Irun kaltetzen du nabarmen.

Amarru politiko horiek, hiria berea dela uste duenak baino erabiltzen ez dituenak, inoiz ezagutu ez den ezegonkortasunean murgildu zuten hiria. Hala ere, EAJ-PNVk oposiziotik proposamenak egiten jarraitu du hiriak dituen defizit handiak hobetzeko. Halaber, bide beretik zihoazen hainbat ekimen babestu ditugu, gureak izan ez arren. Gainera, Irungo interesak beste erakundeetara helarazteko bitartekari lanak egin ditugu, bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundira. Lan horren fruitu izan da Oinaurren AP-8rako lotune erdia eta Hegoaldeko Saihesbidearen lehenengo fasea, eta Arbesko Egoitza errealitate bilakatzea. Eusko Jaurlaritzaren eta gure Udal taldearen arteko Lankidetzak ere ezinbestekoa izan da etxebizitzako gaiak, Via Irun, etab. jorratzeko.

Baina sozialismoaren eta Jose Antonio Santanoren jarrera ez da aldatu: beraiengandik sortzen ez den proposamen oro baztertzen eta blokeatzen jarraitzen du. Hala, hiriak erakusten duen nekea areagotu egiten da egunez egun.

- 2019rako aurrekonturik gabeko hiria
- Ekonomikoki hazten ez den hiria
- Gipuzkoa osoan langabezia tasa handienetakoa izaten jarraitzen duen hiria
- Ahultzen doan tokiko merkataritza
- Elkarren artean geroz eta lotura gutxiago duten auzoez osatutako hiria
- Trafiko eta mugikortasunari dagokionez, geroz eta blokeatuagoa dagoen hiria
- Degradatutako eta errekuiperatu gabeko gunek dituen hiria
- Sozialki geroz eta gutxiago kohesionatuta dagoen hiria
- Mailako kirol ekipamendurik gabeko hiria
- Segurtasun falta sentitzen den hiria
- Etab.

Atsekabea sentiarazten digu gaur egungo Irunek. Baina ez dugu etsiko. Irunek badu etorkizunik. Gogoia dugu, ametsak ditugu, hiria maite dugu, kualifikatutako gizon-emakume taldea dugu, ahalmena dugu. Berreskura dezagun benetako irundar harrotasuna!

Irunek badu etorkizunik guztiok batera lan egiten badugu. Ez dago inor soberan. Baina horretarako, gaur egun arte ezagutu ditugun politika egiteko moduak aldatu behar ditugu. Irun aldatzeko, aldaketa bozkatu behar da. Positiboan, arduraz, ilusioa sorrarazten duen proiektu berritzaile eta gauzatu daitezkeenekin.

-
- A) Gobernantza berria
 - B) Ekonomia Sustapena
 - C) Gizarte bultzada
 - D) Hiriaren eraberritzea
 - E) Bizikidetzeta eta Segurtasuna

Proposamen horiek gauzatu ahal izateko, egungo geldialditik ateratzeko eta hiri proiektu hau errealitate bilakatzeko, oso ongi prestatutako eta Irunekin konprometitutako gizon eta emakumez osatutako taldea dugu, taldean lan egiteko eta hiriak duen norabide aldaketa lideratzeko gaitasuna duena.

EAJ-PNVk hiria gobernatzeko talde sendoa dauka: hiriaren etorkizuna hobetzeko gaitasuna eta helburua duena, kudeaketan esperientzia eta gaztetasuna uztartzen dituen, enpresa pribatuan zein administrazio publikoan ibilbidea duten pertsonen osatutakoa. Ilusioz betetako talde konprometitu daukagu, etorkizuneko belaunaldi berriei nortasuna duen Irun eskaintzeko...

Lan-taldea dugu. Proiektuak ditugu. Ilusioz beterik gaude. Gaitasuna daukagu. Irunek merezi du!

**Alda dezagun txip-a. Alda dezagun Irun.
EAJ-PNVtik bultzatuko dugu aldaketa.
Irun sendoagoa egingo dugu. Eman bidea Iruni!**

IRUN BERRIRAKO TALDEA

- 1) Xabier IRIDOY OLAIZOLA
- 2) Josune GÓMEZ SARASOLA
- 3) Lourdes LARRAZA QUÍLEZ
- 4) Iosu IGUIÑIZ ECHEVESTE
- 5) José Enrique CORCHÓN ÁLVAREZ
- 6) Miren GUEZURAGA CANTERO (INDEPENDIENTE)
- 7) Lander UGARTEMENDIA MÚGICA
- 8) Ricardo BERECIARTUA VALLEJO
- 9) Jasone UGARTE GARCÍA DE ANDOIN
- 10) Iulen ARANA ZOLEZZI
- 11) María Belén ROJAS ALONSO (INDEPENDIENTE)
- 12) Gorka ÁLVAREZ ARAMBURU
- 13) Irene CASTEZUBI ARELLANO
- 14) Noel D'ANJOU OLAIZOLA
- 15) Ana Isabel ITURRIA VÁZQUEZ (INDEPENDIENTE)
- 16) June ARAMBURU CARIÑENA
- 17) Lauren ETXEPARE IGIÑIZ (INDEPENDIENTE)
- 18) María Elena MICHELENA MINGUEZ (INDEPENDIENTE)
- 19) Pedro María ICARDO ESPINO
- 20) Itziar ZUNZUNDEGUI NARVARTE
- 21) Bernardino GARCÍA ECHEVERRIA
- 22) María Eugenia IPARRAGIRRE BEMPOSTA
- 23) María Elena ECHEGOYEN GAZTELUMENDI
- 24) José Antonio EIZAGUIRRE ARZAC
- 25) José Javier CHAPARTEGUI LARRAÑAGA

ORDEZKOAK:

- 1) Helena LÓPEZ AGUIRREZABALA
- 2) Roberto BLANCO MARTÍN
- 3) Iñaki ZUNZUNDEGUI NARVARTE





**GOBERNANTZA
BERRIA**

GARDENTASUNA

Azken hamarkadan, Irungo Udala harro azaldu da gardentasun gaietan aitzindari izateaz. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien gizarte honetan tresna digitalak funtsezkoak bilakatu dira Udala bezalako administrazioaren gardentasunean sakontzeko. Horren harira, iraganean www.irun.org udal webgunea aitzindaria izan, baina, gaur egun, informazio gainkarga handia dago. Informazio hori guztia modu ordenatu eta errazean aurkeztu behar zaio hiritarrari, informatzeko eta jarraipena egiteko aukera izan dezan.

Bestalde, gardentasunaz hitz egiten dugunean, kontu emateaz ere ari gara. Hiritarren aurrean kontu emateko, ordea, ezinbestekoa da agintaldi hasieran Kudeaketa Plan Estrategiko bat aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea: zeintzuk dira Udal Gobernuak hurrengo lau urteetarako zehaztu dituen helburuak? Helburu horiek lortzeko, zein baliabide, ekintza eta programa jarriko dira martxan lau urte horietan? Zein egutegi ezarriko da urrats horiek jarraitzeko?

Galdera horiei erantzunak, Kudeaketa Plan Estrategikoaren bitartez, publikoki landuak, jasoak eta zabalduak izan behar dute. Horrela bakarrik lortuko da politika publikoetan inprobisazioa ekiditea eta Udaletxean ordezkariak duten talde politikoei eta hiritarrei kontrolatzeko eta jarraipena egiteko aukera ahalbidetzea.

Horretaz gain, beharrezkoa ikusten dugu Osoko Bilkurez gain, Batzorde berriemaileak ere streaming bitartez zuzenean ematea, hiritarrek bilera horietan jorratzen denaren berri izan dezaten.

Azkenik, gardentasun politikoa egunerokotasunera eramatea merezi du Irunek, eta ez hainbeste aldarrikapen hutsean geratzea. Gure ingurune hurbilenean baditugu gardentasunaren gorenean dauden Udaletxeak. Horietatik ikas dezakegu eta aipatutako helburuan sakondu, DYNTRAK argitaratutako datuek (2018ko uztaila) aditzera ematen dutenaren arabera, Irunen hobetzeko asko daukagulako oraindik.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- 2019 urtea amaitu aurretik Udal Kudeaketa Plan Estrategikoa 2019-2023 publikoki aurkeztea.
- Udal webgune berria sortzea erabilgarriagoa, errazagoa, irisgarriagoa, ordenatuagoa eta ikusgarriagoa.
- Prozesu parte-hartzaile baten bitartez, Udaletxean beharrezkoak diren eta gure hiri-nortasuna islatzen duten balioei buruz "Irungo Balioak" programa sortzea.
- Udal Araudi Organikoa aldatzea eta eguneratzea, indarrean dagoena 1989koa baita.
- Irungo Udalean egiten diren Batzorde berriemaileak streaming bitartez ematea.
- Hiritarrei udal politika publikoen inguruan kontu emateko protokoloa ezartzea.

HIRITARREN PARTE-HARTZEA

Hiritarren parte-hartzea tokiko bizimoduan ez da kontzeptu hutsa. Partekatzen dugun eremua eta bizi garen hiria ulertzea eta diseinatzea da parte-hartzea.

Irungo etorkizuna ezin da egitura piramidaletatik, goitik behera, eraiki. Hiriak bultzatu behar dituen politikak hiritarregandik, hiritarrekin eta hiritarrentzat sortuak izan behar dute. Azken finean, pertsonak, irundarrak gara Irun osatzen dugunak. Horregatik, Irun berria eraikitzeko irundarren ahotsa, iritzia eta parte-hartzea ezinbestekoak dira.

Hiritarrek subjektu pasibo izatetik eragile hartzaile, subjektu aktibo eta igorle izatera pasa behar dute. Parte-hartze hori gizarte antolatu (elkarte desberdinen bitartez) edo norbanakoaren eskubide bezala bideratu behar da.

Hori guztia azken urteetan adostu eta landu den eta behin betiko onarpenaren zain dagoen Hiritarren Parte-hartzearen Araudian jasotzen da.

Behin onartuta, Araudi hori ezin da tiraderan geratu. Sinetsita gaude bere erabilera publikoaz, Irungo etorkizuna irundarregandik, irundarrekin eta irundarrentzat diseinatua izateko tresnak eskaintzen baititu.

Horregatik, Hiritarren Parte-hartzearen Araudi hori aktibatzearen aldeko apustua egiten dugu EAJ-PNVn, hiriko erakunde eta elkarteekin harreman instituzionalak zainduz.

Horren harira, zuzeneko parte-hartze bideak erakundetzen dituen V. tituluak (hiritarren ekimena eta deliberazio sistemak eta hiritarren kontsulta) demokrazia eredu ordezkagarriaren eta demokrazia eredu parte-hartzailearen arteko elkarbizitzan sakontzea ahalbidetzen du. Tokiko politiken definizioan irundarrek zeresan handiagoa izan dezaten, parte-hartze bide horiek gauzatuko ditugu EAJ-PNVtik.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU

- Hiritarren Parte-hartzearen Araudia behin betiko onartzea.
- Hiritarren Parte-hartzearen Araudiak dituen mekanismoak aktibatzea, etorkizuneko politika estrategikoetan aplikatuz, bereziki.
- www.irun.org-ko hiritarren parte-hartzerako atala birdiseinatzea, hiritarrentzat ikusgarriagoa, erakargarriagoa, grafikoagoa eta irisgarriagoa izan dadin.
- Udalaren eta hiritarren arteko komunikazio kanalak hobetzea, udal ordezkarien, hiritarren eta talde antolatuen arteko elkarrizketa eremuak sortuz.
- Elkarte-mugimendua indartzea eta haiekin elkarlana sustatzea aldizkako bilerak eta ekintzak planifikatuz.




**EKONOMIAREN
SUSTAPENA**

ENPLEGUA

Ekonomiaren sustapena Irunen, gure hiri proiektuaren ardatz estrategikoetako bat da, horrek enpleguaren sorreran eragin zuzena baitu, eta, ondorioz, gizartearen ongizatean.

Hortaz, ekonomia bultzatzeak enplegua sortzea dakar, eta enplegua sortzeak pertsonen bizi kalitatea hobetzea. EAJ-PNVk enplegu duin, egonkor eta kalitatezkoen alde egiten du.

Irunek urte asko daramatza Gipuzkoako enplegu datuen zerrendako bukaerako postuetan. Hiriko langabezia tasak kezkarria izaten jarraitzen du:



(Iturria: Eustat, 2019ko martxoa)

Datu horiek kontuan hartuta, enpleguaren sustapena eta sorrera EAJ-PNVrentzat lehentasuna dira. Kronifikatutako errealitate honetatik ateratzeko helburuarekin, Irunek bere ahalegin, sormen eta baliabide guztiak ekonomiaren sustapenera bideratu behar ditu. Erronka hori ezin da gauzatu Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, enpresen eta unibertsitateen artean ez bada sinergiarik eta partekatutako estrategiarik sortzen. Erakunde arteko lankidetzak funtsezkoa da gure hiriaren egoera ekonomikoa aldatzeko eta hobetzeko.

Bestalde, hiri bateko ekonomia suspertzeko, politika ekonomikoez gain, erabakigarriak dira mugikortasuneko eta hirigintzako politikak, azken horiek Udalaren eskumen zuzenekoak, gainera. Irun erakargarriagoa egiteko erabili behar ditugu.

Laburbilduz, Irun hiri erakargarri bilakatzeko ahaleginak egin behar ditugu, bertan kokatu eta aberastasuna sortzen duten enpresentzat, bezero potentzialentzat, erakargarria gazte ekintzaileek enpresa berriak sortu eta beraien proiektuak garatu ditzaten. Horrela bakarrik lortuko da hirian enplegu berriak sortzea, enplegu duin, egonkor eta kalitatezkoak.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Bidasoa Bizirik, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa areagotzea, Gipuzkoan eta Euskadin hain emaitza onak ematen ari diren ekonomia suspertzeko programak Irunen garatzeko.
- Bidasoa Bizirik Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-Ekin Planean gehiago inplikatzeko. Enplegarritasunaren bitartez gizarte inklusiorako estrategia da, eta Gipuzkoan bazterkeria egoeran edo arriskuan zeuden 1950 pertsonen lana aurkitzea ahalbidetu du.
- Trenbide Guneaz eta VIA IRUN proiektuaz baliatzea ekonomia jarduera berriak erakartzeko.

GARRAIOA ETA LOGISTIKA

Garraio sektorearen jarduera funtsezkoa izan da hiriaren ekonomiarentzat iraganean, eta baita gaur egun ere. Gure kokapen geografiko pribilegiatuak -igaroleku izaerak-, eta, batez ere, sektoreko profesionalen ezagutzak eta eskarmentuak, ahalbidetu dute Irun erreferentziazko hiria izatea nazioarteko garraioaren eta logistikaren esparruan. Horrek azaltzen du ZAISA I (1990), II (1996) eta III (2003) sortu izana.

Haatik, mundu mailako krisialdi ekonomikoak, eta sektorean izandako aldaketek, nabarmen eragin diote Irunen garraio sektorearen jarduerari.

Sektore horrek bere ezaugarrietara egokitutako azpiegiturak eta zerbitzuak behar ditu, ezinbestean. Gaur egun, azpiegiturak hartzeko gaitasuna duten beste kokapenetara deslokalizatzen ari dira gune logistikoak. EAJ-PNVk apustu irmoa egiten du Irunek sektorean duen pisu handiari eusteko, beharrezko gaitasunekin eta erreferentziazko baliabide logistiko berrieekin.

Horretarako, esparru horretan ere, ezinbestekoa da gainerako administrazio publikoekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, hain zuzen, modu koordinatuan lan egitea.

Eta erakundeen arteko elkarlana lantzeaz gain, aintzat hartu beharko dira sektoreak dituen premiak, eta datozen hamarkadetan sortuko diren erronka eta aukerak. Horri dagokionez, arreta berezia eskaini beharko zaizkie BREXITak ekar ditzakeen ondorioei, baina baita merkantzien garraiorako bide eta garraiobide berriei ere. Izan ere, Abiadura Handiko Trenaren gauzapenak gehiago konektatuko gaitu Europarekin, eta Pasaiako Portuaren biziberritzea ere kontuan hartu behar da.

Etorkizunean aurkeztuko zaizkigun erronka eta aukera horiei modu integralean egin behar diegu aurre, hau da, euskal administrazio guztien garraiobide eta azpiegitura politikak koordinatuz eta lerrotatuz. Halaber, Irunen finkatutako sektorearen beharrak kontuan hartu beharko dira, bidelagun izateko.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Behobiako auzoan jarduera urbanistiko bat bultzatzea, eremu horren egoera eta irudia hobetu ahal izateko, ezin baita ahaztu bertan kokatzen dela, ZAISAko konplexuan, garraio enpresen kopuru handi bat.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinazioa eta elkarlan instituzionala hobetzea, garraio sektorearen etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko sinergia partekatuak lortzeko.
- Mondragon Unibertsitatearen presentzia aprobetxatzea, logistikan eta garraioan espezializatutako ikasketa eskaintzarekin, garraio sektorearen erronka eta beharren definizioan modu koordinatuan lan egiteko

INDUSTRIA

Historikoki, industriaren sektorea hiriko ekonomiaren oinarrietako bat izan da, dinamismoa eta enplegua sortuz.

Gaur egun, 6.645 enpresak garatzen dute bere jarduera hirian. Horietatik, % 6 dira industriaren arlokoak, 335 guztira, 3.650 langilerekin (EUSTAT-en Establezimenduen eta Enpleguaren Azterketa, 2016). Hona hemen xehetasunak, jarduerak:

INDUSTRIA	EMPRESAS	EMPLEO
Elikadura, Edariak eta Tabakoa	33	546
Ehungintza, Jantzigintza, Larrua, Oinetakoak	25	99
Egurra, kortxoa (altzariak, saskigintza eta espartzugintza ez)	15	44
Papera	3	45
Kimika	4	29
Kautxozko produktuak eta Plastikoak	24	371
Produktu metalikoak (makina eta ekipoa izan ezik)	97	1072
Material eta Ekipo elektrikoak	6	60
Makinaria eta beste ataletan sartzen ez den Ekipoa	16	194
Motordun Ibilgailuak, Atoiak eta Semi-Atoiak	2	141
Garraiorako beste materiala	12	243
Altzariak; beste manufaktura industriak	2	294
Makinaria eta Ekipoaren Konponketa eta Instalazioa	23	91
Ur Bilketa, Arazketa eta Banaketa	3	64
Hondakin Uren Bilketa eta Tratamendua; Hondakinen Bilketa, Tratamendu eta Eliminazioa	7	51
INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUAK GUZTIRA	335	3.650

Taulan egiaztatu daitekeenez, Irungo industria sektorea dibertsifikazio handikoa da. Enpresen grinari esker gairitu ahal izan da krisi ekonomikoa. Europar Batasunak beharrean dagoen esparru gisa katalogatzen du Irun, bere langabezia tasa EAEko batez bestekoa baino %20 handiagoa baita. Horri esker, industria sektoreko enpresek aukera dute Langabeziaren aurkako Egitasmoak aurreikusitako diru laguntzak, edo Eusko Jaurlaritzaren 'Indartu' bezalako programari dagozkionak eskuratzeko, haien lehiakortasuna eta enplegarritasuna hobetzeko. Hori dela eta, Udalak eta Bidasoa Bizirik eragile aktiboak izan behar dute enpresen, Aldundiaren eta Jaurlaritzaren arteko bitartekaritza.

Era berean, eta "Industria eremuen eraberritze urbanistikoa" izeneko atalean zehaztuko dugun bezala, industria enpresen jarduera inguruak nabarmen hobetu behar dira, bai irisgarritasunari, bai irudiari dagokionez.

Begibistakoa da industria jarduerak bultzada behar duela Irunen, iraganen zuen indarra berreskuratu ahal izateko.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Lankidetzaren publiko-privatuko esparruak bultzatzea, Irungo enpresen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren partaidetzarekin.
- Irunen Berrikuntza eta ekintzaitza aurreratuko ekosistema bat sortzea, nazioartean erreferente izango dena, inguruko administrazio publikoek eta enpresek definitutako arlo estrategikoetan.
- Enplegu sorrera bultzatzea enpresa ekimen berritzaileak sortuz, aukera gehien eskaintzen dituzten sektoreetara bideratutakoak, lurraldean sustraitutakoak, eta talde ekintzaileek sustatutakoak.
- Kontaktua eta harremana erraztea hirian dauden hezkuntza zentroyen (Mondragon Unibertsitatea eta Lanbide Heziketako zentroyak) eta Irungo enpresa ehunaren artean.
- Irungo enpresen lehiakortasuna eta nazioartekotzea sustatzea, beste erakundeek martxan dituzten egitasmoen, zein Bidasoa Bizirikoen proiektu propioen bitartez.
- Gure ekonomia ehunean berrikuntza eta garapen teknologikoa bultzatzea.
- Tokiko enpresekin etengabeko harremana edukitzea, beraien beharrak ezagutzeko eta arazoei aurre egiten laguntzeko.

TOKIKO MERKATARITZA

Bere kokapen geografikoagatik, eta irundarren izaera ekintzaileagatik, Irun beti izan da erreferentzia bere tokiko merkataritza dela-eta. Iparralde, Hondarribia eta Bortziriak-Baztango bezeroak ez ezik, Gipuzkoako beste herrietakoak ere erakarri izan ditu.

Hala eta guztiz ere, gaur egun, tokiko merkataritza gainbehera doa Irunen hainbat faktore direla eta, hala nola merkatalgune handien ugaritzea Baiona-Donostia korridorean, merkatal kate nagusiak edo on-line erosketak. Ondorioak begibistakoak dira hiritar guztiontzat: lokal mordoa itxita, salgai edo alokairuan, hornidura azokaren zailtasun handiak, etab.

Sektorearen datuei erreparatuz, Euskadin, 2008 eta 2018 bitartean, merkataritza txikia % 16 murriztu zen. Tarte horretan Irunen, eta Bidasoa Biziriketik osatutako txostenetan jasotako EUSTAT-en datuen arabera, hamar urteko epean, 1.206 denda eta saltoki txikitatik, 895ra igaro ginen. Horrek esan nahi du tokiko merkataritzak % 26 egin duela behera gurean, Euskadiko batez bestekoa baino % 10 gehiago.

Egoera dramatiko da merkatarientzat eta haien familientzat. Hortaz, premiazkoa da indarrak batzea elkarlanean eta sormenean oinarritutako neurriak hartzeko.

Gainerako politika publikoetan bezala, administrazioen arteko koordinazioa (Udala, Bidasoa Activa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) funtsezkoa da, eta EAJ-PNVk gogor egingo du lan norabide horretan. Baditugu, gugandik gertu, hiriko merkatal sektorearen gainbehera arintzea ahalbidetu duten esperientziak, eta Irunek ezin die horiei bizkarra eman. Eskala handiagoan sinergiak sortuz, elkarrengandik ikasiz, onura egingo diogu Irungo tokiko merkataritzari.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Plan Sakon bat martxan jartzea, Irunen merkataritzak bizi duen egoera eta horren zergatiak aztertzeko, denda eta saltokientzat lagungarriak izango diren babeserako jarduerak gauzatu ahal izateko.
- Tokiko denda eta saltokiei laguntzak eskaintzea garai berrietara eta salmenta eruedetara egokitzeko, hirian promozionatzeko jarduera koordinatuak gauzatzuz.
- Gure hiriko merkataritza txikiaren eta ostalaritzaren bezeroei aparkalekua erraztu, eta merkataritza elkarrekin elkarlanean sakondu, hiriko lurrazpiko aparkaleku guztietan deskontuak eskaini ahal izateko.
- Establezimenduen sarbideak hobetu, salgaien hornidura erraztu eta arintzeko.
- Kanpaina eta ekintza kopurua handitzea, merkataritza dinamizatze eta Irunera bezeroak erakartzeko aldera.
- Plan bat martxan jartzea azalera dauden gaur egungo edukiontzi antiestetiko eta antihigienikoak kentzeko, eta lurrazpiko edukiontziak jartzeko, Irunen estetika urbanoa hobetuko luketelako, establezimendu gehien dituzten eremuetatik hasita, tokiko merkataritza suspertzeko neurri gisa.
- Irungo sarrerak egokitzea, Iparralde eta Behobiako merkatal eremuetan jarduketak bultzatuz, Irun

NEKAZARITZA MUNDUA

Irungo udal barrutiak 42,4 km²-ko azalera dauka, 1.420,9 biztanle km²-ko populazio-dentsitatearekin. Hala ere, dentsitate hori handiagoa da hirigunean, eta, era berean, baxuagoa landa ingurunean.

Hirigunea, batez ere, egungo AP8aren iparraldean kokatzen da eta nekazal eremua bere hegoaldean. Azken hamarkadetan, Irun bere landa eremuari bizkarra emanez bizi izan da, eta bertako ingurune naturalak ezezagunak dira irundar askorentzat. Era berean, Udalak ez die jaramonik egin Bidasoa, Meaka, Olaberria, Lapitze eta Ventas-eko nekazal guneetan bizi diren eta bertan lan egiten duten pertsonen behar, kexa eta proposamenei.

Egun, nekazal munduak aitortpen soziala behar du baserritarrek egiten duten lana balioan jarriz: ingurunea zaindu, kalitatezko ekoizpena, etab. Irundar askok ez dakite Irunen kalitate handiko produktuak ekoizten direla (baratza, ezti, haragia, etab.).

Nekazal munduak eremu horietan bizi eta lan egiten dutenei zein hirigunean bizi direnei aukera handiak eskaintzen dizkiela uste dugu EAJ-PNVn. Nekazal munduak, baserritarrek beraien beharrak eta proiektuak udal agendan egotea behar dute.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Udalaren eta baserritarren arteko Lan Mahaia eratzea, azken horiek beren intereseko gaiak eta beharrak mahaigaineratu ditzaten eta Udalak haien eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko bitartekaritza eta koordinazio lana egin dezan.
- Landa eremuetako nortasuna eta idiosinkrasia mantentzeko lan egitea.
- Nekazal jarduerak sustatzea, ekoizleei malgutasuna, erraztasuna eta laguntza eskainiz eta haien behar dituzten azpiegiturak eta oinarriko zerbitzuak ahalbidetuz.
- Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko hurbiltasuna eta tokiko produktuen merkaturatzea ahalbidetzea.
- Olaberria Bailararen Babeserako Planaren idazketa sustatzea eta bertan zehaztutako ekintzak burutzea.
- Ibarrolako Ubidearen Bailararen Babeserako Planaren idazketa sustatzea.

TURISMOA

Irun eremu turistikoek inguratuta dago, hala Gipuzkoako kosta (Hondarribitik Mutrikura) nola Lapurdiko kosta (Hendaiatik Baionara). Horiei Nafarroako Bortziriak eta Baztango eskualdeak gehitu behar zaizkie.

Turismoa enplegu eta aukeren sortzaile bezala, gorantz doan sektorea da: geroz eta bisitari gehiago hurbiltzen dira gure Herria ezagutzera, esperientzia paregabeak eta errepikaezinak bizitzeko helburuarekin. Horregatik, Irunek sektorearen gorakada orokorra aprobeztatzen jakin behar du, aipatutako hiru korredore turistikoak lotzen dituen hiria garelako.

Gure kokagune geografikoa pribilegiatu eta estrategikoa da. Bere indargunea kulturaren eta, batez ere, ingurune naturaletan dauka. Irun hiri aparta da mendia, historia, itsasoa, merkataritza, ostalaritza, etab. biltzen dituelako. Horiek modu iraunkorrean koordinatu eta sustatu beharreko aktiboak dira.

EAJ-PNVtik APUSTUA EGITEN DA:

- Irunek dituen aktiboak balioan jartzea, merkatu desberdinetako aukera guztiak aprobeztatzea ahalbidetuko duen eskaintza turistikoa bereizgarria prestatzeko.
- Hiriko eragile inplikatu guztiekin hausnarketa estrategikoa bat egitea, kalitatezko eskaintza turistikoa lehiakorra, berritzailea eta profesionala sortu, garatu eta sustatzeko oinarri izango dena.
- Hiria turismoaren merkatuan kokatzen laguntzeko esperientzia turistikoa berrien garapena babestea.
- Hiriaren sustapenerako kanpainak egitea.
- Gaur egun utzita edo erortzean dauden eta gure historia eta nortasun irundarra osatzen duten aztarna arkeologiko eta arkitektonikoak berreskuratzea: bainu erromatarrak, Junkaleko harresia, Gaztelu Zahar gaztelua, aduana zaharreko eraikina, Oteiza lantegi-etxea, Urdanibia jauregia eta bere errota. Behin berreskuratuta, ezin dugu erakusleho bihurtzeko utzi; programa desberdinen bitartez, bizirik mantendu behar dira, parte-hartzaileak izan behar dute kultur agenda berri, bizi eta dibertsifikatuago batean txertatuta.

IRUN TURISMO BERDEAREN ESKAINTZAN

Irunek bere lekua bilatu behar du turismoaren sektorean, eta ez dago zalantzarik leku horrek turismo berdearena izan behar duela. Turismo berdea ahalera handiko jarduera da, ingurune ekonomiko dinamizatzen lagundu dezakeena, ondare historiko, kultural eta ingurumenekoaren alde lan egiten denean, betiere.

Kontuan izan behar da, halaber, turismo berdearen bila datorrenak egonaldi laburraren alde egiten duela, horregatik turismo mota hori zubietan, Aste Santuan, Gabonetan, udan, etab. kontzentratzen da, kostatik gertuko inguruetan, batez ere.

Sektore honetan, beraz, Irunek badu ahalmenik eta aukerarik, gainerako politika publikoetan bezala, gainerako administrazioekin koordinatuak izan behar dutenak, Irun isolatua gera ez dadin eta sinergia partekatuak bila ditzan.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Bidasoa eskualdeko hiru hiriak, Hondarribia-Irun-Hendaia, lotuko dituen oinezkoentzat bidea eta bidegorriaren proiektua berreskuratzea, ibilbide jasangarri eta atseginaren bitartez bi udalerrri turistikoekin konektatu gaituzten.
 - Plaiiaundiko Parke Ekologikoa Meaka auzoarekin bidegorri bitartez lotzea. Hartara, Aiako Harriak Parke Naturalarekin eta Hirugurutzetako meatze-ingurunearekin lotuta geratuko litzateke.
 - Hotelekin harremana mantentzea Irunen turismo berdea garatzeko dauden aukerak eta erronkak elkarrekin aztertzea.
-



**GIZARTE
SUSTAPENA**

HAURTZARO ETA GAZTERIA

EUSTAT-eko 2018ko datuen arabera, Irunen 0-30 urte bitarteko 17.671 pertsona bizi ziren (biztanleriaren %29,7). Horietatik 11.238 adin txikikoak ziren (%19).

Euskadiko Tokiko Erakundeen 2/2016 legeak, bere 17. artikuluko 36. atalean zehazten du udalerrien berezko eskumena izango dela "gazteria politiken planifikazioa, antolaketa eta Kudeaketa"

Egia da haur eta gazteei zuzendutako hainbat zerbitzu eta jarduera daudela Irunen, baina zalantzarik gabe, ez dira nahikoak. Horregatik, EAJ-PNVtik beharrezkoa ikusten dugu haurtzarora eta gazteriarantz zuzendutako udal politika guztiak dokumentu Estrategiko batean planifikatuta eta antolatuta egotea, guztiari koherentzia emango diona eta adina eta egoeraren arabera, pertsona horien beharretara egokituko dena.

Ondorengoa ikusten dugu:

- Haurrei zuzendutako jarduera eskaintza zabalagoa behar da
- Familia eta lana bateratzea errazteko formulak bilatu behar dira
- Udalaren eta gazteriaren arteko lotura instituzional falta dago
- Gazteriarentzat erreferentzia gune bat behar da
- Irungo gazteriaren emantzipazioaren erronka handiari heldu behar zaio

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Prozesu parte-hartzailearen bitartez, "IRUN Gazte Plana 2019-2025" burutzea, Irungo haurtzaroaren eta gazteriaren egoeraren diagnostikoa islatuko duena, eta arlo desberdinetatik (hezkuntza, aisia, etxebizitza, enplegua, etab.) modu koordinatuan aplikatu eta bultzatu daitezkeen neurriak biltzen dituenak.
- Gazteriari zuzendutako politikan ikastetxeak ere inplikatzea.
- Bi Haurtxoko/ludoteka berri sortzea: San Miguel-Pinar-en eta Behobia-54 poligonoan.
- Eskolaz kanpoko ekintzei babes handiagoa eskaintzea.
- Ikastetxeetan jardueren heziketa gida sortzea.
- Haurrentzat itxitako parkea sortzea.
- Irungo Gazte Kontseilua sortzea.
- Beste herrialdeetako gazteekin ikasle-trukeak sustatzea.
- Gazte eta adineko pertsonen arteko bizikidetzaren programak bultzatzea.
- Euskaditik kanpo bizi, ikasi edo lan egin duten gazteen topagunea ezartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren GAZTELAGUN programa sustatzea (23-35 urte bitarteko gazteentzat etxebizitza alokatzeko laguntzak).
- "GAZTEARTEAN" programa finkatu eta garatzen jarraitzea (haur eta gazteentzat aisia).

ADINEKO PERTSONAK

Gaur egun, 2018ko EUSTATEko datuen arabera, Irunen 12.646 pertsona ditugu 65 urtetik gora (biztanleriaren %21,25). 80 urtetik gorako pertsonen biztanleriaren %6,7 suposatzen dute, gutxi gorabehera.

Beren bizitza lanean igaro duten pertsona horiek, egun familien funtsezko zutabe dira, balore, babes eta kohesio elementuen transmisio uhala. Horregatik, edozein udaletxe, baita Irungoa ere, beraien bizi kalitatea hobetzeko baliabideak eskaintzera behartuta dago, egokituta, irisgarria, segurua eta barneratzailea den hiri batean bizitzen jarraitu ahal izateko.

2016ko uztailan, EAJ-PNVren ekimenari esker, "Euskadi Lagunkoia" programara atxiki zen Irun. Egitasmo horren helburua da adineko pertsonen eta, oro har, hiritarren parte-hartzea sustatzea hiriko auzoen eta eremu desberdinen hobekuntzarako, adinean aurrera doazen heinean bertan beren bizitza egiten jarrai dezaten. Hala ere, "Irun Lagunkoia" diagnostikoa besterik ez du jasotzen (2017ko maiatzekoa), eta aurreikusitako ekintzak garatu gabe eta proposatutako hobekuntzak martxan jarri gabe jarraitzen du Udalak.

Era berean, zahartzeaz hitz egiten dugunean, saihestezina egiten zaigu mendekotasun arretaz mintzatzea. Horren harira, gogora ekarri behar da 2008ko Gizarte Zerbitzuen Euskal Legea onartu zenetik egin den eskumen berraketa. Gaur, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua udalaren eskumena da (Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantziazioarekin) eta egoitzak eta eguneko zentroak Gipuzkoako Foru Aldundiarenak. Foru erakundeak eraikiko duen Arbesko egoitzak, udaletxearen apartamentuekin batera, eskualdean dugun itxaron zerrenda arinduko du. Edonola ere, adineko pertsonen nahia da beren etxeetan bizitzea ahalik eta denbora luzeena. Borondate hori da, hain zuzen ere, Udaletik sustatuko diren politikak gidatuko dituen eta erantzuna eman behar zaiona.

Azkenik, bizi garen gizarte eredu honetan, adineko pertsonen artean bakardade eta isolamendu handiagoa antzematen da, eta, beraz, dagoen estrategia indartu egin behar da.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- "Irun Lagunkoia" programa sustatzea, Irungo adineko pertsonen benetako hiri lagunkoia lortzeko beharrezkoak diren ekimenak garatzeko.
- Beren etxeetan bizitzen jarraitu nahi duten adineko pertsonen zuzendutako Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua sustatzea.
- Administrazioen arteko lankidetzaren areagotzea (Udala-Foru Aldundia-Eusko Jaurlaritza) pertsona ardatz duen arreta eremuan sakontzeko.
- Belaunaldi arteko lankidetzaren programak sustatzea, gazteen eta adineko pertsonen arteko bizikidetzaren bezalakoak.
- Gipuzkoako programa pilotuak Irunen aplikatzea (adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Matia Fundazioaren "Etxean Bizi" programa).
- Lehen mailako arretarako gizarte zerbitzuak deszentralizatzea, udal lokalak aprobetxatuz, auzoetako adineko pertsonengana hurbiltzeko (ospitale zaharreko zerbitzu zentralak mantenduz) eta errealitate eta beharrei erantzun hobea emateko.
- Adineko pertsonentzako aisialdirako zerbitzuak dibertsifikatzea.
- Udal Gizarte Zentro berriak sortzea Irunen.

GIZARTE INKLUSIOA

Irungo langabezia tasa Gipuzkoakoa edo Euskadikoa baino altuagoa izan da historikoki. Azken urteetan, gure inguru hurbilenean susperraldi ekonomikoak langabeziaren bilakaera beheranzkoa izatea ahalbidetu du. Hala ere, badaude pertsonak eta taldeak denbora luzez langabezian daudenak.

Urte askotako langabeziak ekarri du Irungo pertsona eta familia asko bazterkeria arriskuan edo, are gehiago, bazterkeria egoeran egotea.

Gaur egun, Gizarte Babeserako Euskal Sistemak egoera pertsonal eta familiar horiek arintzeko baliabideak eskaintzen ditu. Horren harira, Eustat-eko datuek zehazten dute Irunen 1.269 espediente daudela jardunean (2019ko martxoan). Pertsona horien profil nagusia da: adin ertaineko emakumea (langabezian) edo 65 urtetik gorakoa (pentsioduna eta alarguna), espainiar jatorria duena (%60), ezkongabea edo banandua.

Bestalde, euskal administrazioek asmo handiko programak dituzte pobrezia tasa murrizteko. Horren harira, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gizarteratzeko Euskal Plana (2017-2021) edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-Ekin plana aipa daitezke. Halaber, gogora ekarri behar da 2018an Irun Eusko Jaurlaritzaren Etxerik gabeko Pertsonen Euskal Estrategiara atxikitu zela, etxerik gabeko pertsonen kopurua %20an murriztea helburu duen ekimenera, hain zuzen ere.

Gaur egun, Irunen, pobrezia egoeran dauden pertsonen kronifikazioaren zorigaitza dago, eta horri hirian "ghettoak" sortzearen arriskua gehitu behar zaio. Errealitate horrek apustu politiko irmo eta ausarta behar du garatzen ez diren programetara atxikitxetik haratago.

Gizarte politikak sustatzeko garaian, erakunde arteko koordinazioa funtsezkoa da zehaztutako estrategiek finkatutako helburuak bete ditzaten.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren indartzea.
- Eskualde ikuspegitik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-Ekin Planean (enpleagarritasunaren bitartez gizarteratzeko estrategia) Bidasoa Bizirik inplikatzeko neurri handiago batean.
- Etxerik gabeko Pertsonentzat Euskal Estrategia Irunen modu irmoan aplikatzea.
- Udalaren eta 3. sektorearekin arteko lankidetzaren indartzea.
- Prebentzio programetan sakontzea.
- Hirian gaueko hezitzaileen presentzia areagotzea.

KULTURA, AISIALDIA, EUSKARA ETA KIROLAK

Irun bere kultura dibertsitatearengatik bereizi da historikoki, eta horren adierazgarri dira antolatu diren ekimenak eta hiritarrei zuzendutako ekintzak. Hala ere, ondare historikoa zabartuta dagoela ikusten dugu, kultura azpiegiturak zaharkituta gelditu dira eta kultur eskaintza ez da, inolaz ere, aberatsa.

Aitzitik, gure inguruko hirietan kultura sustatu da hainbat jaialdiren bitartez (Blues-a Hondarribian, Itsas Jaialdia Pasaian, Atlantikaldia Errenterian, etab.). Irunek antzeko ekitaldiak behar ditu, beste herrietako pertsonak erakartzeko eta kultura arloan erreferente bilakatzeko. Horretarako, gainerako udalerriekin sinergiak, agenda partekatua, etab. sortu behar dira.

Era berean, hiritarrentzat eta, bereziki, gazteentzat erreferente izango den kultur gune baten beharra ikusten da. Amaia Kultur Zentrotik haratago ez dago hirian topagunerik, eta hori ere eskas geratu da gurea bezalako hiri baten behar kulturaletarako.

Bestalde, EAJ-PNVn aisialdirako guneak txukuntzea beharrezko ikusten dugu, topagune bilaka daitezten. Azkenik, euskararen aldeko apustuak, gizarte kohesiorako elementu bezala, benetako izan behar du Udalaren aldetik.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Kafe Antzoki bat sortzea.
- Jaialdiak erakartzeko inguruko herriekin sinergia kulturalak sustatzea.
- Irungo historia eta memoria ezagutzera emateko eskola programa bat sustatzea.
- Aire zabalean anfiteatro kulturala sortzea ekintzak burutzeko.
- Jarduera kulturalak Irungo auzo desberdinetara eramatea.
- Irungo ondare materiala iraunaraztea, elementu arkitektoniko, kultural edo immaterialak bezalakoak. Azken multzo horretan sartzen dugu gure San Martzial Alardea, gure arbasoengandik jasotako oinordetza eta Irungo gehiengoaren aukera eta borondatea dena, jaia ulertzeko bestelako moduak gutxietsi gabe.
- Erraldoi eta buruhandiekin lotutako ekimenak babestea eta sustatzea.
- Kultur programa anitzagoa eta merkeagoa bultzatzea.
- Aste Santuko pausoen berreskuratzea babestea.
- Euskarazko kultur jarduerak sustatzea adin tarte guztientzat (baita adinekoentzat ere).
- Euskarazko hizkuntza-paisaia lantzea eta sustatzea (kartelak, errotulazioa, etab.).
- Zonalde berdeak eta parkeak aisialdirako eta kulturarako aprobetxatzea, bereziki Oxinbiribilekoa.
- "Koadrilategi 2.0", Solas Jolas, Familia Ola, Udagirot... bezalako programen bitartez gazteen artean euskararen erabilera sustatzea .

- Irundarrendandik sortzen diren ekimen kulturalak, aisialdikoak eta euskarazkoak babestea.
 - Euskara arlotik hizkuntza berdintasuna sustatzea hiritarren zein administrazio eta Udal Korporazioaren artean.
 - Udalekuak eta kanpamentuak bezalako ekintzak bultzatzea eta dibertsifikatzea haur eta nerabeentzat.
 - Graffiti artistikoak egiteko hirian guneak ahalbidetzea.
 - Biztanleen artean kirola sustatzeko berriazko planen garapena bultzatzea, sektore guztiei, baina bereziki, gazteei, emakumeei, adineko pertsoneri eta desgaitasuna duten pertsoneri zuzendutako eskaintza egoki eta anitz batekin.
 - Eskola kirolaren "Eskola kirola hezitzen duen kirola" programan parte-hartzeko aukera guztioi bermatzea, desberdintasun sozio-ekonomikoari, genero desberdintasunari eta aniztasun funtzionalari arreta jarritz.
 - Hiriko kirol elkarte eta klubekin etengabeko elkarlana, koordinazioa eta babesa sustatzea.
 - Gure kirol autoktonoak babestea eta sustatzea.
 - Kirol txapelketa eta ekitaldiak erakartzea, antolatzea eta babestea.
-

ANIZTASUNA

Hasieran gogoratzen genuen bezala, Irun bere kokagunearengatik joan etorrien hiria izan da, eta horrek harrera hiri izaera eman dio.

Eusko Jaurlaritzaren IKUSPEGI Inmigrazioaren Euskal Behatokiaren datuek adierazten dute 2018an atzerriko biztanleriaren ehuneko handiena duen Euskadiko udalerria dela Irun, 8.094 pertsonekin (13,1%).

- Ø Europa: 2.777 lagun
- Ø Afrika: 1.420 lagun
- Ø Amerika: 3.400 lagun
- Ø Asia: 490 lagun
- Ø Ozeania: 7 lagun

Pertsona horiek guztiek irundar gehienentzat ezezaguna den hizkuntza, kultura, erlijio aniztasuna osatzen dute. Bizitzako arlo askotan bezala, ezagutza ezak konfiantza falta eragiten du. Horregatik, aurreiritzietan oinarritutako gaitzespen edo xenofobia jarrerak ekiditeko funtsezkoa da tokiko erakundeak errealitate anitz hori ikustarazteko lanean jardutea, kultura guztien arteko elkarbizitza bermatuz.

Irunen benetako elkarbizitza eta gizarte kohesioa bilatzen baldin bada, ezinbestekoa da atzerritarrak tokiko kulturara bertaratzea, eta, era berean, bertakoak atzerriko kulturaren ekarpenaz jabetzea.

Era berean, aniztasuna jorratzeak LGBTI kolektiboaren errealitatea kontuan hartzea ere esan nahi du, baita aniztasun funtzionala duten pertsonak eta aniztasun erlijiosoa aintzat hartzea ere.

Horretarako, Udalak eragile aktiboa izan behar du eta Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlana sustatu behar du, sinergia partekatuak sortzeko.

Azkenik, 2018ko udan, joan-etorrian zeuden migranteak iristearekin batera, euskal administrazioek, gizarte eragileekin batera, erronka handiari aurre egin behar izan zioten. Horren harira, jada adostutako neurriak hobetzeko koordinazioa ezinbestekoa da; horregatik, Eusko Jaurlaritzak Europako, estatuko eta euskal erakundeei egindako "Share" proposamena babesten dugu.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Integrazio Komunitarioko Zerbitzua aniztasun eta migrazio zerbitzura bideratzea, lanbide profilak egokituz, eta behar izanez gero, berriak sortuz.
- Foru Aldundiaren Bizikidetza Aniztasunean Plana eta Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetza eta Giza Eskubideak Plana 2017-2020 Irunen zabaltzea.
- Kulturarteko topagunea sortzea Irunen.
- Irungo erdigunean aniztasun etnikoaren mapa sortzea.
- Irunen bizi diren atzerritarrak euskaran murgiltzea.
- Euskal Jiran kulturarteko gurdiaren parte-hartzea sustatzea.
- Aurreiritzi sozialen kontra, "ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea" bezalako ekintzak babestea.
- Udaltzain barietateko IV Berdintasun Planak begiesten dituen ekintzak garatzea.
- Udaletxeko arloetan, zerbitzuetan eta agentzietan generoa zeharkako moduan lantzea.
- Prebentzio eta arreta politikak sustatu, Irun emakumeen aurkako indarkeria gabeko hiri bihurtzeko helburuarekin.



**HIRIAREN
ERABERRITZEA**

DISEINUA ETA NORTASUNA

Iraganean, Irun Gipuzkoako eragile ekonomikoan bilakatu gintuen industria sendoan eta aduana zerbitzuetan sostengatzen zen. Hiri paisaiak errealitate horren inguruan egiten zuen bira, eta bere desagertzearekin oraindik gainjartzea lortu ez duen beheraldian murgildu zen hiria.

Harrotasun irundarra berreskuratzeko, Irunek begiradaz aldatu eta benetako hiri-eraldaketa prozesuari ekin behar dio. Erronka hori bideragarria izango da erakunde publikoak, eragile sozialak eta hiritarrak batera baldin bagoaz, Irun diseinatuz eta birdiseinatuz: Irun atseginagoa irundarrontzat, eta Irun erakargarriagoa bisitarientzat. Laburbilduz, abangoardiako hiria nahi dugu, modernoa eta atsegina.

Horretaz gain, gaur egun, ez dago kohesiorik edo logikarik hiri-altzarien elementuei dagokienez, tarte laburretan kale-argi, banku edo baldosa mota desberdinak aurkituz. Hiri paisaia horrek agerian uzten du hiriaren neke kolektiboa eta orain arte udal kudeaketaz arduratu direnen mimo falta.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

EPE LABURREAN

- Irungo espazio publikoaren diseinua adostutako nortasun irizpide batekin gauzatzea: hiri-altzarietan, kaleetan, plazetan eta auzoetan.

EPE LUZEAN

- Ibai-ltsaso espazioak berreskuratzea: Alde Zaharra Bidasoa ibaira gerturatzea eta Plaiaundi parkea berreskuratzea.
- Trenbide Espazioa eraberritzea: Azpiegitura askok gurutzatutako hiria da Irun, zatiketak eta bide-zorrak sortzen dituztenak. Topoaren trintxera kendu behar da Lope de Irigoyen kalean, eta eremuko 365.000 metro karratuak berreskuratu eta antolatu.
- Auzoak konektatzea: Hiriaren alde batera zein bestera, trenbidearen hesia ezabatuz.
- Mugikortasun berria diseinatzea: Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plan berri bat osatzea.

HIRIAREN ERABERRITZE URBANOA

Hirigintza ikuspegitik, Irun modernoagoa eta abangoardiakoa bilatzen dugu EAJ-PNVtik. Hala ere, gure hiria geldirik dago, iraganean bereizten zuen bizitasun urbanoa eta soziala galduz. Hiru hiri-eremutan lehenesten ditugu esku-hartzeak:

Irungo sarbideak: gure hiriaren aurkezpen karta dira. Historiaz beteta, hala Iparralde-Gal nola Behobia merkataritza jardueretan oinarritzen dira, lanpostuak eta aberastasuna sortuz. Bi inguruneek, ordea, eraldatu egin behar den utzikeria eta degradazio irudia aurkezten dute.

Hirigune historiko eta urbanoa: multzoak ez du kohesiorik, estiloen nahasketa heterogeneoa dago, eta ez dago erakin berri azpimarragarririk (San Juango eremua amaitu gabe, Urdanibia-Korrokoitz oraindik errematatu gabe eta bizikidetzaz arazoekin, Lope de Becerra eremuan erortzeaz dauden eraikinak, etab.). Ereku horien kudeaketa konplexua da, baina gobernu sozialistaren utzikeriaren aurrean, EAJ-PNVk ingurune horiei irtenbidea emateko apustu sendoa egiten du.

Irungo zabalgunea: elkarren artean loturarik ez duten auzoak aurkitzen ditugu, trenbide bretxak zatituta. Trenbide Gunearen birsorkuntza Irunerako aukera eta erronka urbano handia da, Irun lotzeko eta irundarrak zeharkako komunikazio bide berriekin kohesionatzeko erabiliko diren milaka metro karratu dituenak. Santanoren gobernuak proposatzen duen azaleko itxuraldaketaren aurrean, EAJ-PNVk asmo handiko proiektu batekin amesten du: trenbideak estali, Topoa mugitu, auzoen arteko lotura berriak sortu, aisialdirako espazio berriak eraiki, komunikazio bide berriak sortu, baita aisialdirako eta formaziorako erabilera berriak ere. Ereku degradatu hori irundarrok benetan harro sentiaraziko gaituen abangoardiako gune berri batean eraldatzeko lan egingo dugu.

Azkenik, ezin ditugu alde batera utzi babesa eta suspertzea behar duten Irungo esparru berde eta naturalak (Olaberriako eta Meakako bailarak), eta berreskuratutako izan behar duten ur fronteak (Bidasoa Ibaia, Txingudiko padurak, etab.).

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

EPE LABURREAN

- Irundar guztioi modu libre eta autonomoan mugitzea ahalbidetzen diguten ekintza zehatzak jasotzen dituen Irigarritasun Plan bat egitea (arrapala berriak, igogailuak, etab.).
- Diru laguntzak handitzea eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko (leihoak aldatu, fatxaden isolamendua...).
- Hirian kalte gehien dituzten kaleak berrurbanizatu, besteak beste; Lapize, Berio, San Miguel auzoko hainbat kale, Artia, Alde Zaharra eta Junkaleko plazatxoak, eta Blaiako bidegurutzean zubi eta biribilgune berri eraikitzea.
- Gain Gainean parkearen hirugarren fasea eraikitzea.
- Jolaserako haur parkeak estaltzea.

EPE LUZEAN

- Eraikuntzak sustatzea hiriguneko orube abandonatuetan, hala nola kale Nagusian, Estazio eta Zubiaurre kaleen arteko bidegurutzeetan.
- Eremu konplexuen garapena bultzatzea: Korrokoitz, Panpinea, Iparralde-Gal, Iparralde-Rekondo, Mendipe eta Lastaola, hiria eraberritzeko ezinbestekoak direlako
- San Miguel-Anakako garapen urbanistikoaren aldeko apustu irmoa egitea: babes publikoko etxebizitzak eraikitzearen aldekoak gara, modalitate desberdinetan. Auzo horiek pairatzen duten ekipamendu gabeziari erantzungo diogu, eremu berde eta kirol gune berriekin (horien artean, arauzko neurriak dituen futbol zelai bat).
- Udaletxe ondoan dauden orubeen erabilera adostea: San Juan plazan eta udaletxeko eraikinaren atzeko aldean.
- Trenbide Gunea eraberrituko duen arnas luzeko proiektua adostea, gobernu zentrala, elkarteak, gizarte eragileak eta hiritarrak inplikatur. HAPOak zehazten duen esku-hartzeekin 365.000 m²-ren ordenazioa aurreikusiko du proiektu horrek: abiadura handiko trena, aldirietako trena, Topoa eta autobus geltokia artikulatzeko geltoki intermodala diseinatzea; gaur egungo arrastoa estaltzea eta iragazkortzea, espazio publikoak berreskuratuz; eta zeharkako komunikazio bide berriak sortzea, auzoak elkarren artean konektatuz eta mugikortasun jasangarria erraztuz.

INDUSTRIA GUNEEN ERABERRITZE URBANOA

Irunek hainbat ingurune industrial ditu, batzuk berriki sortutakoak (Araso, esaterako), eta beste batzuk, duela hamarkada batzuk ezarritakoak. Logikoki, berriki sortutako eremu industrialak egoera onean aurkitzen dira, duela hainbat hamarkada sortutakoak, berriz, oso egoera txarrean daude.

Industria-nabeen eta pabiloien nariadurak, gunehorietan garatzen den jarduera ekonomiko eta industrialak erakargarritasuna galtzea dakar enpresa berriak finkatzeko. Gertatu da, halaber, gunehorietan finkatutako enpresak industria-gunehorietara lekualdatzea.

Hiritarrentzat lanpostuak mantentzea ahalbidetzen duten enpresa horiekin guztiekin kontaktatzeko duen garrantzia ezin da gutxietsi. Industria sektoreak 335 enpresa ditu Irunen EUSTATen 2016ko azterketaren arabera. Industria horiek, orotara, 3.650 laguni ematen diete lana.

Datu horiek adierazten dute industria sektorea Irunen estrategikoa dela, eta horregatik, beraien lan, jarduera eta negozio eremuak erakargarriak izan daitezela lan egin behar da. Hortik Irungo industria-gunehorietan, publiko zein pribatu, erregenerazio urbanoari ekiteko beharra sortzen da.

Horretarako, erakundeen arteko lankidetzak ezinbestekoa da: Eusko Jaurlaritzak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzak eskaintzen dituzte helburu horrekin, eta Udalak ere eragile aktiboa izan behar du enpresei Babesa emanaz.

Azkenik, nabarmendu behar da Bidasoa-Oarsoalde zonaldea behardun zonalde bezala katalogatua izan dela, Euskal Autonomia Erkidegoko urteko %20ko batz bestekoaren gainetik daukan langabezia-tasa dela eta. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak behar gehien zuten eremuetarako (Irun dago tartean) Talka Plana sortu zuen, aurrekontu garrantzitsua duten programekin. Horren adibide da INDARTU 2019 programa (12 milioi euroko aurrekontuarekin).

Erronka garrantzitsua da gure hirian, eta Udalak industria gunehorietan zaindu eta babestu behar ditu, bereziki, hamarkadetan zehar lanpostuak sortzea eta jarduera industrialak garatzea ahalbidetu duten horiek.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Zaharberitze Plana bultzatzea degradazio handiena pairatzen duten poligonoetan.
- Eraberritzeko esparruak planifikatzea, pabiloien 'Plan Renove'-a, Eusko Jaurlaritzarekin batera diru laguntzak kudeatuz.
- Erabili gabeko lurzoru eta pabiloien katalogoa osatzea, eta pizgarriak eskaintzea proiektu bideragarriak dituzten enpresen esku jartzeko.
- Sorrera berriko mikroenpresak babesteko plan bat osatzea.
- Zubieta-Urdanibia Parke Teknologiko berria bultzatzea, Hondarribiko Udalarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.
- ARASO eremuan enpresa berrien ezarpena babestea.

AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Mugikortasunaz hitz egiten dugunean, ez gara errepideetako zirkulazioaz, bidegorriez, oinezkoentzako gunez eta garraio publikoaz bakarrik ari, horien guztien arteko bizikidetzaz ere mintzo gara.

Gaur, Irungo mugikortasuna anabasa huts da: ordu jakinetan hirirako sarrerak eta irteerak kolapsatu egiten dira (Ipar ingurabidea, Elizatxo etorbidea...); erdiguneko trafikoa asko hobetu daiteke; errepide zirkulazioaren eta bizikleten arteko bizikidetzak arazoak ematen ditu; bidegorri "Sarea" elkarren artean loturirik ez duten adabakiez osatuta dago, seinaleztatu gabe, gaizki diseinatuta, eta horrek ez du txirindaren erabilera sustatzen.

Kaos horren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 14 milioi euroko aurrekontuarekin finantzatu dituen AP8 eta Oñurre arteko lotune-erdiak eta Hegoaldeko Saihesbidearen lehenengo faseak (Oñurre-Miguel de Ambulodi) hiriko sarbideak arintzen lagunduko dute, nahiz eta Hegoaldeko Saihesbide osoaren eraikuntzak lehentasuna izan behar duen.

Gaur, Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plan berria behar du Irunek, 2010ekoa zaharkitua geratu baita. Plan berri horrek mugitzeko modu guztien hobekuntza eta bizikidetzaz bilatu behar ditu. Ezinbestekoa da Iruntzat ibilgailuen zirkulazioa erraztea eta arintzea, baita bidegorriak sustatzea, zabaltzea eta elkarren artean lotzea. Era berean, Trenbide Gunearen berrantolaketa egun trenbideak banatzen dituen auzoen artean komunikazio bide berriak ahalbidetuko ditu.

Irunek azpiegituretan eta mugikortasunean dituen beharrak anitzak dira.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Mugikortasun arin, seguru eta jasangarriaren aldeko apustua egitea. Oreka bilatzea oinezkoen, ibilgailuen, txirindularien eta garraio publikoaren mugikortasunaren artean.
- Hiri Mugikortasun Jasangarriko eta Azpiegituretako Plan berri bat osatzea, ibilgailuen zirkulazioa erraztu eta arinduko dituen, bidegorriak zabaltzea eta sustatu, eta oinezkoen ibilbideei lehentasuna emango diena.
- Patinete eta garraio pertsonal elektrikoaren erabilera arautuko duen udal ordenantza egitea.

HOBKUNTZAK AZPIEGITURA HANDIETAN

- GI-636 saihesbideko zati batzuk faseka destolestea, Plaiaundi institutuaren eta Zubimuxuko biribilgunerantz doan irteeraren arteko zatiari lehentasuna emanez.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Hegoaldeko Ingurabidearen eraikitzea bultzatzea, hiri erdian trafikoa murrizteko, eta hiritarrek Irunera sartzekoan edo irteterakoan pairatzen dituzten auto-ilareri konponbidea emateko. Hegoaldeko Ingurabidearen bigarren fasearen garapenaren eskutik, hiriko sarbideak hobetzea.

HOBKUNTZAK OINEZKOENTZAKO BIDEETAN

- Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko Araudia eguneratzea.
- Bide eta espaloiak berrurbanizatu honako kaleetan: Donostia, Lapize, Berio, Gaztelu Zahar, Anaka, Artaleku, Santa Elena, Ermita, Zubiaurre, Pintor Berroeta eta Pio Baroja.
- Espaloi edo oinezkoentzako bide berriak ahalbidetzea Olaberrian, GI-3452 errepidean Danok-Anaitik Estebeneara, Ventasen Andrearriaga kalea Bidaurre industriagunetik txaletetaraino, eta GI-2134 autobus geltokiraino.
- Gure hiria pixkanaka irigarri egitea helburu duen Irigarritasun Plana osatzea, pertsonak modu librean eta autonomoan mugitu ahal izateko.

BIDEGORRIEN ERABILERARAKO HOBKUNTZAK

- Egungo bidegorrien diseinua hobetzea: seinaleztatzea, ibilbidea, dimentsioak, etab.
 - Egungo Sarea hiriaren kanpoaldera zabaltzea: bidegorri berria proiektatzea Letxunborro etorbidetik Ventasko industriaguneetara.
 - Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Txingudiko Ekologia Parkea inguratuz Hondarribia-Irun-Hendaia lotuko dituen bidegorria eraikitzea.
 - Behobiako bidegorriaren ibilbidea zabaltzea Bidasoa ibaiaren ertzetik Oxinbiribileko parkeraino.
 - Bizikletak aparkatzeko, gordetzeko zein garbitzeko eremuak egokitzea.
-

IBILGAILUEN APARKALEKUA

Irunek, oro har, eta zenbait auzok, bereziki, kaleko aparkalekuen gabezia pairatzen dute. Ibilgailua uzteko leku bat aurkitzea lan nekeza bihurtzen da sarritan.

Azken urteetan, Santanoren gobernu sozialistak trafikoa oztopatzeko politika gauzatu du, ibilgailurik gabeko hiria bilatuz. Haatik, ibilgailu pribatua erabiltzea begibistako beharra da, eta hori zailtzeak are arazo handiagoa sortu besterik ez du egiten.

Gaur egun, Irungo aparkaleku eta mugikortasun politikak porrot nabarmena egin du, eta premiazkoa da mugikortasun jasangarrirako eredu bat finkatzea, garraiobide bitarteko guztien arteko elkarbizitza bilatuko duena, publiko edo pribatuak izan.

Hori horrela, Irungo hiritarren bizi kalitatea hobetzeko, aldatu egin behar da aparkalekuak kudeatzeko eredu.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Aparkaleku Faltari Aurre Egiteko Plan Berezia osatzea.
- Azterketa egitea lurrazaleko aparkalekuak sortzeko, auzoetako egoiliarren gauez aparkatzeko dituzten zailtasunei aurre egiteko.
- Gure hiriko merkataritza txikiko eta ostalaritzako bezeroen aparkalekua errazteko, elkarlana sustatzea merkatarik elkarrekin, lurrazpiko aparkalekuetan deskonturako tiketak eskaintzeko.
- TAOko lehen orduan tarifa murriztuak bultzatzea.
- Aparkaleku azkarrerako eremuak ahalbidetzea.
- Egoiliarrei gordetako plazak handitzea.
- Zabalguneeetan aparkaleku 'poltsak' egokitzea behin-behinekoak badira ere .
- Foru Aldundiarekin negoziatzea, Arbesko egoitza berriaren aldameneko zoruaren erabilera aparkalekuetarako bideratzeko.
- Aparkaleku publikoak eraikitzeke aukerak aztertzea, Belaskoenean, Dunboan, eta Artian, Belartzako hegaldaren azpian.

ETXEBIZITZA

Gaurdaino, Babes Ofizialeko Etxebizitzen kopuruak hazkunde nabarmena eduki du Irunen. Inguru urbano berriak sortu dira Oinaurren, Palmera-Monteron, edo Porcelanas Bidasoan. Guztira, babestutako 700 etxebizitza baino gehiago eskaini dira, eta horrek ahalbidetu du dezente murriztea pertsona/familia eskatzaileen kopurua (azken hamar urteetan, babestutako etxebizitzen eskarira ia erdira jaitsi da).

Aitzitik, gaur egun, gehiago dira alokairuko modalitatean etxebizitza eskatzen duten pertsona/familiak, jabetza erregimenean eskatzen dutenak baino. Hori dela-eta, etxebizitza eskaintza hiritarren beharretara egokitu behar da, alokairuko etxebizitza publikoko parke bat beraien esku jarrita.

Horrekin batera, kontuan hartu behar da, datu ofizialen arabera, etxebizitza eskatzaileen % 80k Irunen bizitzen jarraitu nahi duela, eta horietatik % 18k auzo berean jarraituko luketela aukera izanez gero.

Datu multzo horrek adierazten du, zalantzarik gabe, etxebizitzari lotutako politika publikoek alokairuko erregimeneko etxebizitza eskaintza publiko baterantz egin behar dutela, ez bakarrik etxe berriak eraikiz, baita hiriko etxebizitza hutsen parkeari etekina atereaz ere.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Alokairuan babestutako etxebizitzen promozioa sustatzea San Miguel-Anaka, Alarde, Lastaola Postetxea eta Alein.
- Eusko Jaurlaritzarekin elkarlana bultzatzea hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko, eta alokairuan jartzeko, jabeentzako pizgarri izango diren neurriekin.
- Alokairuan gazteentzako 120 apartamentu eraikitzea, Alberto Larzabal-Aduana kalean, Oinaurren eta Emigrazioko eraikinean.
- Irungo gazteei emantzipaziorako laguntzak eskaintzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Dekretuak jasotakoari jarraiki, hustutako etxebizitzen deklaraziorako prozedura administratiboa martxan jartzea.
- Lucas Berroa kaleko udal eraikinean okupatu gabeko etxebizitzak zaharberritzea, etxebizitza sozial gisa egokitzeko.

KULTUR ETA KIROL EKIPAMENDUAK

KULTUR EKIPAMENDUAK

Gizarte aurreratu baten eskari sozial nagusietakoa da kultura. Ez bakarrik hori; tresna ere bada, kolektibo gisa nortasuna lantzeko, eta errealitate berrietara irekitzeko aukera ere bai. Horregatik, Udal ordezkarien ardura da eskari horri erantzuna ematea, kulturari lekua eskainiko dioten espazioak ahalbidetuz, bere adierazpide eta dimentsio guztietan, sormenari eta berrikuntzari bidea ematen diotenak, batez ere.

Kulturari lotutako elkartegintza mugimenduak tradizio handia du Irunen. Hori zaindu behar dugu, eutsi, eta adierazpen forma eta talentu berriak sustatu, gure hiria turismo urbanoaren erakarpenerako, eta sormen talentu berrien nazioarteko poloa bihurtu dadin, jarduera ekonomikoa eta aberastasuna sortuko duten aukerak sustatuz.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Kultur espazioak berrantolatzeko proiektuaren irizpideak zehazte aldera, azterketa bultzatzea, komunitateak eta kultur oinarri bizi eta parte-hartzailea sortzeko.
- Auzoak kulturaren integratzea, horietan sormen zentro txikiak eskainiz.
- Gure nortasunaren zati diren espazio abandonatuak berreskuratzea: Oteiza-Basterretxea etxe - tailerra birgaitzea, Junkaleko harresiak zaharberritzea, Jaizubian Urdanibia Jauregiaren erabileraren lagapena aztertzea, Gaztelu Zaharreko arrastoak finkatzea, eta erromatar bainuetxe zaharrak zaharberritzea, Oiasso museoaren ondoan.
- Bidasoako Margolarien Museoa bultzatzea.
- CBAk kultur espazio berriak egokitzea gazteentzat.

KIROL EKIPAMENDUAK

Osasun ohitura, aisialdi edo lehiaketa bezala, ohiko praktika da kirola gure hirian. Udaletxea da, entitate pribatuekin lankidetzan, kirol zerbitzu publikoen kudeatzaile eta arduradun nagusia. Tokiko administrazioak modu eraginkor eta egokian kudeatu behar ditu baliabideak, oinarritzko kirol jardueraren garapena eta sustapena errazteko eta ahalbidetzeko helburuarekin. Horretarako, hirian kirol praktika anitzeko beharrezkoak diren azpiegiturak ahalbidetu behar ditu, tokiko kirol entitate eta elkarrekin elkarlanean.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

- Plaiiaundiko kirol instalazioak Txenpereneako Kirol Eremu berrira lekuz aldatzea.
 - Gaur egun dauzkagun kirol instalazioen mantenua, eta etengabeko eguneratzea eta modernizazioa bermatzea.
 - Kirol instalazioen udal sarea zabaltzea, dotazioa justifikatuta dagoen kasuetan, eta lehentasuna emanez irisgarritasun unibertsala errazten dutenei, instalazio gutxien dituzten auzoei, eta maila sozio-ekonomiko baxuenak dauzkatenei.
 - Arauzko futbol zelaia eraikitzea Donostia kalearen aurrean (San Miguel).
 - Jolaserako espazioa eraikitzea Oinaurren.
 - Kirol instalazioak estaltzea gaur egun Ventasen dagoen futbol zelaiaren ondoan, kirol espazio itxi eta erabilera anitzekoa edukitzeko.
-

INGURUMEN POLITIKA

Irunek urrats irmoak eman behar ditu Hiri adimentsua eta ingurugiroarekiko sentsibilizatua izateko. Etorkizuneko irunek, hiri adimenkorra izan behar du, 'Smart city'-rantz eginez.

Administrazio Publikotik, eta zeharkako Jasangarritasun Egitasmo bat oinarri hartuta, ekintzak garatu behar dira arlo hauei erantzuteko: efizientzia energetikoa, garapen jasangarria, kutsadura atmosferiko eta akustikoaren murrizketa, eta airearen kalitatearen hobekuntza.

Tokiko esparrutik, garapen jasangarria bultzatzeko eta Klima Aldaketari aurre egiteko apustua sendotu behar da (Stop CO2, Alkateen Ituna, LCC Udal ordenantza).

Helburu horiek lortu ahal izateko, eta era koordinatuan eta zeharkakoan lan egiteko, Udaleko Ingurumen arloa elkarlanean arituko da gainerako udal departamentuekin eta udal arloaz gaindiko hainbat entitaterekin.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DU:

HIRI INGURUAN

- Euskadin onartu berri den jasangarritasun energetikoko legeak ezarritako helburuak eta betebeharrak betetzeko lan egitea.
- 10 urteko epean, gutxi gora behera, hiri autobus lerroen elektrifikazioa gauzatzea.
- Ibilgailu elektrikoen errekarga puntu publikoak ahalbidetzea.
- Hiri hondakin solidoen bilketa sistema berritzea, lurrazpiko edukiontzien bitartez.
- Ekintza publikoak bultzatzea kutsadura akustikoari aurre egiteko, eremu publikoetan neurgailu eta sentsoreak ezarrita, berriki onartutako Hiriko Zarataren Maparen arabera.
- Udal eraikinetan eta bide publikoan efizientzia energetikoa hobetzea.
- Irungo Azterketa Energetikoaren lan ildoak sustatzea, udal eraikinetan energia berriztagarrien ezarpena errazteko.

LANDA EREMUAN

- Olaberriako Bailararen Babeserako Planaren idazketa bultzatzea, eta aurreikusitako ekintzekin hastea.
- Ibarrolako Ubideko Bailararen Babeserako Planaren idazketa bultzatzea.
- Udal jabetzakoak diren kutsatutako lurzorua garbitzea, adibidez, Olaberrian mindek kaltetutakoak, zabortegiko lixibiatuak, San Martzialeko tiro zelaikoak, etab.
- Txingudi Badiako Zuzentarau Plana bultzatzea, Plaiaundiko parke ekologikoa berreskuratzeke eta lehengoratzeko.



**BIZIKIDETZA ETA
SEGURTASUNA**

BIZIKIDETZA

Hiriko bizitzak, ezinbestean, hiritarren eragin zuzena duten interes gatazkak ekartzen ditu arlo desberdinetan: bizilagunen arteko gatazkak, lan gatazkak, etab.

Bizikidetza arazoak saihestezinak dira edozein hiritan, baita Irunen ere. Nola konpondu bizikidetza arazoak? Irtenbideak ezin dira aginte administratibotik bakarrik etorri edo neurri errepresioileetatik.

Bizikidetza baketsua ezin da ordezkatu, horregatik, ezinbestekoa da hiritarren eta hirian eragiten duten aferetan inplikaturako aldean parte-hartzearekin kontaktzea. Irun bizikidetza handiagoa duen hiria izatea nahi dugu, baina elkarbizitza gune bat sortzeko ardura partekatua eskatzen du. Horregatik, beharrezkoa da prebentzioa, bitartekaritza eta erreparazioa bezalako bideak indartzea.

EAJ-PNVk Irunen dauden edo egon daitezkeen gatazkak murriztearen aldeko apustua egiten du, hiriko eragileen arteko harremanetarako guneak sortuz. Elkarrizketa gune horietan, gatazka egoeretan subjektu aktibo bilakatuko lirateke hiritarrak. Auzotarren arteko gatazkak bideratzeko guneak sortzea beharrezkoa ikusten dugu, desberdinen arteko komunikazioa ahalbidetuz (politikarien artekoa, hiritar antolatuak, zein ez antolatuak, etab.). Era berean, bizikidetza hitz egiten dugunean, Irunen bizi garenen eskubide eta betebeharez ere ari gara. Horren harira, bide publikoan terrazen eta mahaitxoaren erabilera arautzen duen udal ordenantza eguneratzea ezinbestekoa da, indarrean dagoena 2001eko baita, eremu itxietan erretzea debekatzen den tabakoaren kontrako legea indarrean sartu baino lehenagokoa (2006). Tabakoaren aurkako lege horrek hiritarren ohituretan aldaketak eragin ditu, terrazen eta mahaitxoaren erabilera nabarmen areagotuz, eta aisialdian jende gehien mugitzen duen alternatiba bilakatuz.

Irun hiria ez dago errealitate horretatik at. Horregatik, nahitaezkoa da aipaturako ordenantza berrikustea, indarrean dagoen araudira egokitzea eta mota horretako eremu eta instalazioek sortzen dituzten errealitate eta sentsibilitateei erantzuna ematea, irigarritasunari lotutako arauen betetzeak dakartzan mugaketak ahaztu gabe.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DITU:

- Bide publikoan terrazen eta mahaitxoaren instalakuntza arautzen duen udal ordenantza eguneratzea.
- Ordenantza horren eguneratzea modu koordinatuan eta adostuan egiteko sentsibilitate guztiak ordezkaturako dituen mahaia eratzea. Bertan parte hartuko lukete teknikariek, ostalaritzako, merkataritzako, Auzo Elkarteetako ordezkariak, adineko pertsonen zein aniztasun funtzionala duten pertsonen ordezkariak...
- Bitartekaritza komunitarioko programa integrala sortzea, kulturarteko gatazkez haratago, bizilagunen arteko gatazkak ere beregain hartzen dituena.
- Gaueko bitartekariaren irudia sustatzea.
- Zaraten kontrola areagotzea, Irungo Zaraten Mapari bultzada emanez eta zaraten arazoari irtenbideak adostuz.

- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun departamentuko Joko eta Ikuskizunen zuzendaritzarekin elkarlana sustatzea adin txikikoak joko-aretoetara sartzea saihesteko, eta ikastetxeak dauden zonaldeetan horrelako espazioak ugaritzea oztopatzeko.
- Gizalegearen aldeko kanpainak areagotzea, hauek etengabeak izan daitezen.
- Irungo memoria historikoa berreskuratzean sakontzea.

SEGURTASUNA

Azken urteotan, Irunen segurtasun falta dagoenaren pertzepzioa errealitate bat da; asko dira hirian segurtasun eza nabaritzen dutela dioten pertsonak, hala hirigunean nola hainbat auzotan.

Hala ere, pertzepzio horrek ez du bat egiten 2018an lortu ziren delinkuentzia datuekin. Hain zuzen ere, Ertzaintzaren datuen arabera, Bidasoa eskualdean, iaz, delinkuentzia tasak behera egin zuen %1,62an (2670 arau-hauste 2018an eta 2712 2017an).

Ondasunaren aurkako arau-hausteei dagokienez, 2017tik 2018ra hauek behera egin zuten %5,97an.

Alabaina, lesioekin lotutako arau-hausteak areagotu egin dira 231tik 2017an 299ra igaroz 2018an, baita familia inguruko erasoak ere (78 salaketa 2018an). Azkenik, sexu askatasunaren kontrako erasoen salaketak nabarmen igo direla aipatu behar da (6 2017an, 34 2018an).

Ertzaintzaren datu ofizial horiek adierazten dute segurtasunaren arloan modu aktiboagoan lan egiteko beharra daukagula Irunen.

Datu horiek eskuartean izan arren, Irunen segurtasunaren gaia jorratzerakoan hiri atsegina eta irisgarriagoa egiteko udalak hartu behar dituen neurriak ere kontuan izan behar dira, hiritarrak seguruago sentiaraziko diren eremuak sortzeko (puntu beltzak kentzea, auzoetako argiztapena hobetzea, etab.). Gai hauek guztiak hauteskunde programa honetako atal desberdinetan jasota daude.

Irunen gertatzen diren delitu kopuruak murrizteko lan egingo du EAJ-PNVk, ikuspuntu prebentibo batetik, baina era berean, auzoetako hobekuntzen bitartez, irundarrek zein bisitariak segurtasun handiagoa senti dezaten lan egingo du.

EAJ-PNVk PROPOSATZEN DITU:

- Bizikidetzeta eta Segurtasunerako Hiri Akordioa lortzea, ordezkari politikoen eta gizarte zibil antolatua artean.
- Hurbiltasuneko Polizia ereduaren ezarpenean sakontzea.
- Komunitate Poliziaren irudiaren garapenerako programa pilotua ezartzea.
- Emakumeentzako gaueko segurtasun neurri handiagoak ezartzea.
- Ertzaintzaren eta Udaltzaingoa arteko koordinazioan aurrera egitea.
- Zebra bideetan oinezkoen ikusgarritasuna oztokatzen duten edukiontziak urruntzea, ibilgailuek pertsonak harrapatzea saihesteko.

UDAL HAUTESKUNDEAK

2019-2023

